

Ekonomia Ituna zabaltzeko, gizarteratzeko eta nazioartekotzeko Estrategia

LABURPEN
EXEKUTIBOA

20 26



Autogobernu sendoagoak
ongizate handiagoa dakar
Euskadi Globala-n

#EUSKADIBERRIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

Ekonomia Ituna: autogobernua eta ongizatea

Ekonomia Ituna gure eguneroko bizitzaren parte da. Erabiltzen ditugun zerbitzu publikoen kalitatean eta Euskadik erabaki propioak, arduratsuak eta bere errealitatera egokituak hartzeko duen gaitasunean agertzen da. Autogobernua emaitza zehatzetan islatzen da herritarrentzat. Eredu horri esker, egonkortasuna, ongizatea eta gizarte-kohesioa dituen herrialde eraiki dugu.

Denboran zehar, Itunak euskal gizartearekin batera eboluzionatzen jakin du, erabakitzeko gaitasuna eta erantzukizuna uztartzen dituen tresna gisa sendotuz. Oreka hori da bere sendotasunaren gakoetako bat: erronkei sendotasunez erantzuteko eta zailtasun-uneetan ere zorrotz kudeatzeko aukera ematen digu. Bere dimentsio teknikitik haratago, kudeaketa publikoa ulertzeko dugun moduaren adierazpena da, hurbiltasunean, erantzukidetasunean eta guztion ongizaterako konpromisoan oinarritua.

Autonomia hori funtsezko zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, segurtasuna edo gizarte-politikak) mantentzeko eta garatzeko gaitasunean islatzen da, epe luzerako eta gure lehentasunekin lerrokatutako begirada batekin. Horregatik, Estrategia hau anbizio argi batekin sortu da: Ituna herritarrengana hurbiltzea eta Euskaditik haratago proiektatzea, autogobernua, ongizatea eta erantzukizuna lotzen dituen eredu bat partekatuz, gero eta interkonektatuago dagoen mundu batean.



Noël d'Anjou

Ogasun eta Finantzetako Sailburua
2026ko maiatza

Sarrera

Ekonomia Ituna egungo foru autogobernuaren giltzarri gisa nabarmentzen da, eta funtsezko tresna da Euskadin ongizate-estatuari eusteko. Era berean, nazioartean berezia den zer-ga-federalismoaren eredua osatzen du, bere izaera asimetrikoagatik eta Foru Ogasunek duten botere fiskal eta finantzario zabalagatik. Horrek guztiak aktibo politiko, instituzional, kolektibo eta akademiko bihurtzen du Ekonomia Ituna Euskadirentzat.

Bere garrantzia gorabehera, XXI. mendearen lehen laurdenean zehar euskal herritarren artean bere ezagutzaren eta balorazioaren inguruan egindako ikerketa soziologikoek paradoxa bat erakusten dute: Ekonomia Itunak babes sozial oso zabala du, baina bere funtzionamendua azaletik baino ez dute ezagutzen herritar gehienek. Sistemaren inguruko ezjakintasuna areagotu egiten da kanpoan, bai Estatu mailan, bai nazioartean.

Egoera horren aurrean, Eusko Jurlaritzak “Ekonomia Ituna zabaltzeko, gizarteratzeko eta nazioartekotzeko Estrategia” onartu zuen 2026ko maiatzaren 5ean, itunpeko sistemaren ezagutzaren zabaltzea, gizarteratzea eta kanpo-proiektzioa indartzeko, bai Euskadin, bai kanpoan.

Estrategia hiru bloketan egituratzen da:

- 1) Ekonomia Itunaren sistemari buruzko laburpena eta Euskadiko Ekonomia Itunaren egungo ezagutza-mailari eta balorazioari eta haren kanpo-proiektzioari buruzko diagnostiko eguneratua.
- 2) Aurretiazko diagnostikotik abiatuta, Estrategiaren ardatz eta helburu nagusien oinarriak eta garapena ezartzea.
- 3) 2026-2031 Ekintza-plana: Estrategia abian jartzea eta sendotzea.

Estrategiaren esparrua. Jarduera-ardatza: autogobernua haztea

Autogobernua ongizate handiagoaren sinonimoa da herritarrentzat. Haren defentsa eta egiteke dauden eskumenen erreklamazioa funtsezko zutabeak dira Estatutua eguneratzeko. Printzipio horien gainean, Eusko Jaurlaritzak berretsi egiten du Euskadiren autogobernua zabaltzeko eta hobetzeko konpromisoa.

143. konpromisoa

Lortutako autogobernuaren defentsa.

145. konpromisoa

Euskadiren ekonomia-eta finantza-autogobernua indartzea eta garatzea.

150. konpromisoa

Munduan euskal interesak sustatzea eta bultzatzea.

151. konpromisoa

Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea.

152. konpromisoa

Euskadik Europako proiektuan parte-hartze aktiboa izan dezan sustatzea.

154. konpromisoa

Euskadik nazioarteko sare eta erakundeetan duen parte-hartzea indartzea.

Estrategia erabat lerrokatzen da autogobernua defendatu, indartu eta proiektatzeko helburuarekin, gure finantzaketa-sistemari buruzko ezagutza gizarteari hurbilduz eta herritarren eta gure foru autogobernuaren eredua osatzen duten erakundeen arteko lotura eta identifikazioa indartuz.

Ekonomia Itunaren ezagutzari eta balorazioari buruzko diagnostikoa

Bi azterketa soziologiko egin dira, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, Ekonomia Itunaren egungo ezagutza maila eta balorazioa ebaluatzeko, bai Euskadin, bai Estatuan:

- 1) *Herritarren iritzia Euskadiko Kontzertu Ekonomikoaren aurrean (2025eko maiatza).*
- 2) *Herritarren pertzepzioa eta balorazioa Estatuan euskal Ekonomia Itunaren gainean (2025eko azaroa).*

Euskadi mailako inkestak erakusten duenez, EAEko herritargehienek azaletik ezagutzen dituzte Ekonomia Ituna eta haren finantzaketa-sistema; hala ere, hura babesten eta defendatzen dute autogobernurako tresna garrantzitsu gisa (% 92) eta ongizate kolektiborako onuragarri gisa (% 87).

Estatu mailako inkestak erakusten du Espainiako gizartean ezjakintasun sakonagoa (% 8k baino ez du adierazten

Ituna ezagutzen duela) eta horren pertzepzio negatiboa duela – edo, behintzat, ez positiboa –, pribilegioa edo elkartasun falta bezalako ideiekin lotuta.

Gainera, ekosistema instituzionalaren diagnostikoak estrategia eta azpiegitura egonkor bat ezartzeko beharra identifikatzen du, foru-federalismo fiskalaren sistema nazioartera zabaltzeko Europako eta munduko esparru politikoan, instituzionalean eta akademikoan.

Estrategiaren ardatzak eta helburuak

Egoeraren diagnostikoan identifikatutako premiei eta hobekuntza-gutxien erantzuteko, Ekonomia Itunaren Estrategiak honako ardatz eta helburu nagusi hauek ezarri eta garatzen ditu:

(I) Zabalkundea: ezagutza eta gardentasuna

Euskal gizartean Ekonomia Itunari buruzko ezagutza sortu eta zabaltzea, gaiaren inguruko oinarritzko jakintza orokorra lortzeko eta foru-finantzaketa sistemaren gardentasuna nahiz kontu-ematea hobetzeko.

(II) Gizarteratzea: balorazioa eta iritzi publikoa

Euskal iritzi publikoa dinamizatzea, Euskadiko herritarren artean Ekono-

mia Itunari buruzko interesa areagotzeko, eta Estatu mailan gaiari buruzko komunikazio- eta pedagogia-estrategia bat garatzea.

(III) Nazioartekotzea: instituzionala, politikoa, ekonomikoa eta akademikoa

Euskal erakundeek nazioarteko erakunde eta foro fiskaletan duten parte-hartzea indartzea eta Ekonomia Itunaren nazioarteko proiektzioa eta posizionamendua zabaltzea, Euskadi Globala estrategiaren esparruan.

(IV) Instituzionalizatzea: egonkortasuna eta garapena

Estrategia inplementatzeko, jarraipena egiteko eta garatzeko azpiegitura instituzional egonkor bat sortzea.

2026-2031 Ekintza-plana

Estrategian ezarritako ardatz eta helburuen izaera dela eta, ekintza-plana eta emaitzen ebaluazioa epe luzeko ikuspegiarekin planteatu behar dira. Estrategia epe luzera garatzeko, jarraikako ekintza-planak konkatenatzea eta ezartzea planteatzen da, Estrategiaren emaitzak etengabe ebaluatu eta eguneratu ahal izateko. Hasieran, 2026-2031 Ekintza-plana diseinatu eta onartu da, Estrategia abian jarri eta finkatzeko.

Planteatutako erronkaren zeharkako eta erakunde arteko dimentsioa kontuan hartuta, Estrategiak aurreikusten du Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa edo Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-ekimenak bultzatzea Estrategian ezarritako helburuak garatzeko eta betetzeko giltzarri diren eragile instituzional, politiko, akademiko, ekonomiko, enpresarial eta sozialekin, bai Euskadiren eremuan, bai kanpoan. Horretarako, egokia denean, dagozkion lankidetzak-akordioak formalizatuko dira, edo Eusko Jaurlaritzak helburu berberetara bideratutako beste erakunde batzuen ekimenei laguntzeko edo ekimenetan bat egiteko tresnak aztertuko dira.

(I) Zabalkundea: ezagutza eta gardentasuna

- Ekonomia Itunaren instituzionalizazio akademikoa indartzea euskal hezkuntza-sistemako maila guztietan:
 - Derrigorrezko hezkuntza, batxilergoa eta lanbide-heziketa:
 - Prestakuntza-etapetako hezkuntza-curriculumak berrikustea eta eguneratzea, eta ekimen edo programa berrien garapena aztertzea, Ekonomia Itunari buruzko jakintzaren transferentziaren emaitzak hobetzeko unibertsitate aurreko hezkuntza arautuaren eremuan.
 - Unibertsitate-eremua:
 - Elkarlana eta lotura sustatzea gobernu-erakundeen, unibertsitateen eta beste organismo akademiko batzuen artean, ikerketa eta argitalpen zientifikoak bultzatzeko, bai eta unibertsitate-irakaskuntza eta ezagutza akademikoaren transferentzia sustatzeko ere, diziplinarteko izaerarekin, Ekonomia Itunari eta foru-ogasunei dagokienez.
- Ekonomia Itunaren sistemari buruzko gardentasuna eta kontu-ematea hobetzea, haren kudeaketaren emaitzak argitaratuz eta herritarrengana hurbilduz, eta informazioa ikerketa-xedeetarako eskuragarri jarritz.
- Ekonomia Itunari buruzko ezagutza foro eta kolektibo espezializatuetan zabaltzeko eta transferitzeko ekimenak eta proiektuak bultzatzea.

(II) Gizarteratzea: balorazioa eta iritzi publikoa

- Ekonomia Itunari buruzko komunikazio- eta gizarteratze-plan bat diseinatu eta ezartzea, egonkorra eta denboran iraunkorra, hainbat kanal erabiliz eta mezua euskal gizartea osatzen duten kolektibo eta antolakundearen aniztasunari eta dibertsitateari egokituz.
- Ekonomia Itunari lotutako funtsezko datak eta mugarriak baliatzea komunikabideetan nahiz sare sozialetan gizarteratze-kanpaina espezifikoak garatzeko, herritarrekin partekatze-ko eta haien artean gaiari buruzko interesa areagotzeko.
- Ekonomia Itunaren 150. urteurrena 2028an ospatzea.
- Ekonomia Itunaren inguruko adostasun-posizioa mantendu eta indartzea, Euskadiko maila instituzional guztietako ordezkariak, alderdi politiko nagusiak eta beste eragile nahiz gizarte- eta herritar-kolektiboak biltzen dituzten topaguneak eta eztabaida-foroak sustatuz.
- Herritarren parte-hartzea dinamizatzea eta enpresa-, gizarte- eta herritar-erakunde eta -ekimenekin lanikidetzan aritzea, Ekonomia Itunaren sistema babesteko eta defendatzeko sare bat ehuntzeko.
- Euskadin Ekonomia Itunari eta autogobernu ekonomiko eta fiskalari buruz egindako balorazioaren eta iritzi publikoaren bilakaera monitorizatzea eta aldizkako jarraipena egitea.

- Espainiako iritzi publikoari zuzendutako komunikazio- eta sentsibilizazio-plan bat diseinatu eta inplementatzea, nagusiki esparru politiko-instituzionalera eta akademikora bideratuta.

(III) Nazioartekotzea: instituzionala, politikoa, ekonomikoa eta akademikoa

- Nazioarteko erakunde eta foro fiskaletan parte-hartzea zabaltzea eta indartzea.
- Ekonomia Ituna «subjektu propio» gisa kokatu eta sustatzea Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotzerako eta kanpo-ekintzarako Euskadi Globala estrategiaren esparruan.
- Europar Batasunean botere fiskala duten estatu-azpiko entitate eta gobernuen artean erreferente gisa kontsolidatzea.
- Nazioarteko organismo, sare eta eragile politiko-instituzionalak identifikatzea, intereseak, komunikazio- eta/edo partaidetza-kanalak irekitzeko eta Ekonomia Itunaren sistema horietan kokatzeko.
- Ekonomia Ituna aktibo akademikoa eta erreferentzia-eredu gisa posizionatzea Europako eta nazioarteko federalismo fiskalaren esparruan, gaiari buruzko ekoizpen zientifikoa atzerriko hizkuntzetan bultzatuz eta arlo horretan espezializatutako nazioarteko sare eta organismo akademikokoetan parte hartuz.

(IV) Institutuzionalizatzea: egonkortasuna eta garapena

— Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailean Ekonomia Ituna aztertzeke, zabaltzeke eta nazioartekotzeko zerbitzu bat sortzea, honako eginkizun hauek betetzeko:

- Estrategiaren helburuen eta ekintza-planaren etorkizuneko garapena, ezarpena, jarraipena eta eguneratzea dinamizatzea eta haren buru izatea.
- Elkarlan- eta lankidetzaren sare egonkor eta formal bat sortzea gainerako euskal erakunde publikoekin (bereziki foru-aldundiekin eta EUDELekin) eta Estrategian ezarritako helburuak garatzeko eta betetzeko funtsezkoak diren beste eragile politiko, akademiko, ekonomiko, enpresarial eta sozialekin, bai Euskadi mailan, bai kanpoan.
- Ekonomia Itunaren eta euskal ogasun publikoen teoria eta praktikari buruzko azterketa, analisi eta ikerketa-lanak garatzea eta bultzatzea, bi helbururekin: batetik, Ogasun eta Finantza Sailaren kudeaketa eta bitartekoak indartzea, eta, bestetik, foru-finantzaketako sistemari buruzko zabalkuntza eta ezagutza bultzatzea, horretarako kanpoko beste eragile batzuekin lankidetzan arituz (bereziki, unibertsitatearekin eta Ekonomia Itunaren eta foru-ogasunen arloan

espezializatutako beste ikerketa-zentro batzuekin).

- Estrategiaren eta 2026-2031 ekintza-planaren ezarpenaren eta betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta hurrengo aldirako Ekintza-planaren diseinuan eta prestaketan parte hartzea.

Etorkizuneko apustua

Estrategia hau ez da komunikazio-ari-keta hutsa, Euskadiko autogobernuaren eta ongizatearen etorkizunerako apustu estrategikoa baizik. Nazioartean gero eta interdependentzia fiskal eta ekonomiko handiagoa dagoen eta Estatuko finantzaketa-ereduei eta lurralde-gobernantzari buruzko eztabaida bizia dagoen egoera batean, Ekonomia Ituna erantzukizun fiskaleko, egonkortasun instituzionaleko eta erabakitzeke berezko gaitasuneko erreferentzia da, bai Estatuaren bai Europar Batasunaren ordenamenduan juridikoki eta funtzionalki erabat bermatuta dagoena.

Onartutako strategiaren helburua da, azken batean, euskal herritarrek eta nazioarteko komunitateak hobeto ulertzea historia eta modernitatea zein autonomia eta elkartasuna uztartzen dituen eredu bat, Euskadiko garapen ekonomikoaren eta gizarte-ongizatearen sistemaren giltzarri gisa nabarmentzen dena.

Estrategiaren dokumentu
osoa kontsultatzeko:



#EUSKADIBERRIA



OGASUN ETA FINANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS